

IPUIN KONTALARI TXIKIA

Xabier Perez de Mendiola, 15 urte

Dima

Udaldiko arratsalde grisa
euri xehea, hitsa,
laino usuan ezkutatuta,
zelatari, mehatxagarri
zugan ohizkoa denez.
Zergatik ez duzu begiz begi aurre ematen?
Ausarti koldarra!
Aspertuta? Ez zenuen zereginik?
Zorigaiztoko hautapena!
Errepide malkar, bihurgunetsu, bakartia
auto bat... gizatasunaren asmakizun marketsa.
Gazte oharkabeak, barre algarak,
hitzontzikeria zirikagarriak.
Abagune ederra!
Bolante eroa jirabiran, ezintasuna,
izua, ezezagunaren ezinegona...
Kolpe bortitz, garrasi, hilzoria...

Isiltasun astuna...
Erori zen leku beraren gainean
egongo zen bere izarra.
Ezuste bat?
Bat-batekoa zuretzat ere!
Barruan, gordeta, iratxo txiki
azti aparta,
zazpi urteko ipuin kontalaria.

Ezjakintasun xumean,
ez zuen zure ikustea igarri,
miresgarritasunez so egin zizun,
atearen bestalde
lagun berria izateko aukera!

Zu, adiezintasunean murgildurik
zauden esku hotzeko Dama,
itsumustuan azaltzen eta
gizakien begietan
izua sortzen duzun hori.
Bai! Gure bizitzaren pasabideetan
soineko anitzez apainduta,
buruharro, handios,
arduragabetasunean, inguruan...
Ta, ta, ta... txan!

Azti txikiaren
irribarre xarmangarriak,
armagabetu, azpiratu
eta sorgidu zintuen.
Aspaldi gizakumeen barne
arduraz jagondako
zure isilpekoa asmatuz.
Izpirituak giltzapetu eta itsutzen
dituen ikararen ontzia
desegin zuen.
Hori bai ausardia!
Begi kosmikoeekin ageriro
zure aurpegi galarazi,
lazgarria behatu eta,

presentzia gardenean
edertasun arrotza antzeman zuen.

Paregabe sentiarazi zizun,
ez zinen betidanik deskribatua
izan zaren bezain ankerra!

– *Zergatik hurbiltzen zara hain lotsagabe?*

Jende orok saihesten nau.

– *Ez naiz zure beldur,*

guztiok gara Plan Perfektuaren giltzarri.

Iratxoaren aztitasunean gatibu
arnasaldi bat eskaini zenigun,
zure hasierako helburua baztertuz.
Denbora gehiago behar genuen...
Segur asko bere irudipenezko istorio
lagaezin baten esklabu.
Inoiz ez bezala eginahalak egin zituen...
Gehiegi jokoan!

Ezin daiteke beste modu batera izan
ipuin kontalari txikiak
horrela ebatzi baitzuen.

Gure bihotzetan irakurtzeko gai,
ibilaldi *xelebre* hari ekiteko
ez geunden oraindik gertu,
hura, aldiz bai,
maisu bikaina!

Soberan ordaina eman eta
beldurrari erronka egin zion.

Ondotxo zekien
tontor garaienak menderatzen.
Oraingo honetan ere,

ez zuen haren hegoak
ebakitzea zilegitu,
itzulerarik gabeko hegalaldia hasiz.
Laino artean bizi zen
idazleak zioenez:
“Berdin zitzaidan
heriotza bera ere
izar batean, planeta batean,
nirean, neure munduan
bazegoen kontsolatzeko

PRINTZE TXIKI BAT!”